

ZURRIOLA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAN IZEN EMATEA

Maiatzaren bigarren hamabostaldian Atarian bitartez ikasleei eta gurasoei eskainiko zaie eskolaz kanpoko jardueren informazioa.

Izena emateko, loturan dagoen inprimakia beteko dute eta informazio zirkularra erreztuko da, ordutegiak eta kuotekin batera.

Epea amaituta, bigarren epe bat irekiko da, baldin eta plazak libreak badaude.

Izena eman ahal izateko ikasleak ez du inolako zorrik izan behar eskolarekin.

Matrikula eta erreziboak:

Musika eta Dantza eskolan matrikularen kuota urtero ordainduko da.

Bi jardueretan parte hartuko duten ikasleek matrikula bakarra ordainduko dute. Matrikularen erdia iraileko erreziboan kobratuko da eta beste erdia urriko erreziboan. Kuotak urritik hasi eta ekainera arte kobratuko dira.

Erreziboak hilaren 15ean kobratuko dira.

Baja emateko arauak eta epeak:

*** Urriaren 31**

-Musika Musika tresnak eta Infomatika musikala: aurreko ikasturteren batean matrikulatuta egon diren ikasleak

-Euskal dantza

*** Abenduaren 31**

-Musika, Musika tresnak eta Informatika musikala: lehenengo aldiz izena ematen duten ikasleak

Goian aipatutako jardueretan baja eskaerak data horiek baino lehenago adierazi beharko dira, eta kuota kobratzeari utziko zaio baja komunikatu eta hurrengo hilabetetik aurrera. Epeak pasatu ondoren ez dira baja eskaerak onartuko eta kobratzeak jarraituko du.

Musika tresnaren batean eskaera kopurua eskain ditzakegun plazak baino handiagoa baldin badira, zozketa egingo dugu epe barruan izena eman duten ikasle berrien artean. Izena emateko orduan lehentasunaren arabera hiru musika-tresna aukeratu beharko dituzte.

Eskolan ez dagoen musika tresna bat ikasteko eskaerarik balego, bideratuko da.

Epez kanpo izena ematen duten ikasleak itxarote-zerrendan egongo dira, eta plaza libreen arabera beteko dira.

Gurasoek eta ikastolako bazkideak ez direnek ere izena eman dezakete Musika eta dantza Eskolan.

Ikasturtearen zehar Ikastaroren bat aurrera eraman ahal izateko gutxienez 7 ikasleko taldea osatu beharko da.

Egutegia:

Jarduera guztiak irailean goizez eta arratsaldez hasten garenean hasiko dira, eta amaituko dira ekainean goizez hasten garenan.

Musika tresnaren klase orduak ikasle bakoitzarekin adostuko dira irailean.